



Esp. kodea: 2010KLOK0001
Eskatzailea: ARTE

Gaia: ARTE, tailaginen elkarteari Nafarroa
etorbidea 33ko lokala lagatzea
Hasiera eguna: 2010/05/31

LOKALA ERABILTZEKO LAGAPEN KONTRATUA

Arrasaten, 2016eko uztailaren San

BILDU DIRA

Batetik:

Izen-abizenak: Maria Ubarretxena Cid

Kargua: Arrasateko Udaleko Alkate-Udalburua

Bestetik:

Izen-abizenak: JOSE M^a ETXABE


NA zk.: 16.219.452J

Kargua: "ARTE" Arrasateko Tailaginen Elkartearen ordezkaria

Alde biek legezko ahalmen osoa aitortzen diote elkarri, lokala erabiltzeko lagapen kontratu hau egilesteko, eta

ADIERAZTEN DUTE

- 1.- Nafarroa etorbidea 33 (lehengo Oltan lantegia) eraikinaen jabea da Arrasateko Udala.
- 2.- Arrasateko udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016-5-5eko bilkuran Nafarroa Etorbidea 33ko lokala ARTE Tailaginen elkarteari lagatzeko akordioa hartu zuen.
- 3.- Arrasateko Udalaren borondatea da lokal hori kultura edota kirola sustatzeko ekintzetan erabiltzea.
- 4.- Bi aldeak ados jarrita, erabilera lagatzeko kontratu hau hitzartu dute, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 79.2 artikuluetan xedatutakoari jarraituz, toki erregimeneko gaitan indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bategina onartzen duena, eta ekainaren 13ko 1.372/1986 Errege Dekretuaren 109.2 artikuluari jarraituz, Toki Erakundearen Ondasunen Araudia onartzen duena, eta klausula hauen arabera





Esp. kodea: 2010KLOK0001
Eskatzailea: ARTE

Gaia: ARTE, tailaginen elkarteari Nafarroa
etrobidea 33ko lokala lagatzea
Hasiera eguna: 2010/05/31

KLAUSULAK

LEHENA.- Nafarroa etorbidea 33ko lokala erabiltzea lagatzen dio Udalak ARTE elkarteari. Lokal hori erabili ahal izango du elkarteak, Erakunde horrekin zuzenean lotuta dauden eta Arrasateko udalerriko kultura sustatu eta bultzatzeko balio duten ekintzetan erabiltzeko.

BIGARRENA.- Lagapen hartzaileak, ARTE elkarteak, konpromisoa hartzen du lokal horiek hartarako erabiltzeko, eta kontratu honetako klausula bakoitza betetzeko. Ildo horretan, ARTE elkarteak konpromisoa hartzen du behar den moduan eta zuzen erabiltzeko laga zaizkion lokalak.

HIRUGARRENA.- Lagapen hartzailearen kontura joango dira lokal horien garbiketa eta mantenimendua.

Udalari dagokio eta haren kontura doa lokalaren aseguruak.

LAUGARRENA.- Lagapen hartzailearen kontura joango dira energia elektrikoa, ura, gasa eta telefonoa hornitu eta kontsumitzetik sortzen diren gastu guztiak.

BOSGARRENA.- Udalak beti izango du lokaletako giltzen kopia bat, gutxienez, eta lagapen hartzailea den erakundeak konpromiso hartzen du udalari kopia berri bat emateko, edozein arrazoi izan eta lokaletako sarrailak aldatzen baditu. Halaber, Arrasateko Udalak eskubide guztiak erreserbatzen ditu lokala ikuskatzeari buruz eta lagapen alde horretan lokalean egiten diren ekintzei buruz.

SEIGARRENA.- Lokal horietan edozein obra egiteko, Udalaren baimena behar izango da. Lagapen hartzailea beharturik dago, batetik, lokala egoera onean edukitzea, eta horretarako bere kontura doaz behar direnak konpondu eta jartzea, eta, bestetik, kontratua amaitutakoan, lokala jaso zuen egoera berean itzultzea.

ZAZPIGARRENA.- ARTE elkartearen oraingo estatutu eta arauetan aurrikusten diren xede eta helburuetarako bakarrik erabili ahal izango dira lokalak, eta helburu horiek betetzeko behar diren funtzioetarako ere bai.


ZORTZIGARRENA.- Portaera oneko arau batzuetara egokitu beharko da lokalen erabilera, eraikin barruan betetzen diren jarduera bakoitza behar den moduan egiteko, eta beste batzuei kalte egiten badie edo beste horiek gogaitzen baditu, santzioa izango du.

BEDERATZIGARRENA.- Halaber, lagapen hartzaileak behartu egiten du bere burua erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuzko, lokalean egiten diren ekintzen ondorioz beste batzuk izan litzaketan kalteak estaltzeko.

HAMARGARRENA.- Egintza batzuen edo omisio batzuen ondorioz kalterik izanez gero, beti ere horietan erabiltzaileen errua, arduragabekeria edo dolua izan delako, erantzukizunak eskatu ahal izango dira eta ordaindu, edo, hala badagokio, kalte-ordaindu.

HAMAIKAGARRENA.- bi urtekoa izango da lagapen epea, beste urte baterako luzagarria, kontratu hau sinatzen denetik kontatzen hasita. Behin lagapen epea amaitzerakoan, berraztertu egingo da lokal hauen lagapen berria.

HAMABIGARRENA.- Kontratu hau iraungiko da





Esp. kodea: 2010KLOK0001
Eskatzailea: ARTE

Gaia: ARTE, tailaginen elkarteari Nafarroa
etrobidea 33ko lokala lagatzea
Hasiera eguna: 2010/05/31

Pentsatutako helburua ezin bada aurrera atera.

Arduragabekeriak erabiliz gero lokalak.

Kontratu honetako edozein klausula hautsiz gero.

Udalak behar den moduan arrazoituta, Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako akordioz adierazita.

Nabarmena bada gutxi erabiltzen dela.

Lehenago adierazitako arrazoiren batengatik kontratua amaituz gero, ez dio emango lagapen hartzaileari ezelako kalte-ordaina izateko eskubiderik.

HAMAHIRUGARRENA.- Klausula hauetan berariaz aurrikusten ez den guztietan, Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 111. artikuluan xedatutakoak arautuko du kontratu hau.


Eta aurreko guztiarekin bat datozela egiaztatzeko eta berariaz bereganatzeko, kontratu hau sinatu dute bi aldeek, hiru aletan eta eragin bakarrerako, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

ALKATEA

ARTE

AERASATEKO TAILAGINEN ELKARTEA

Maria Ubarrexena Cid



-JOSE M^o ETXABE

